


PRENTSA AGIRIA

500 urteko kartografia Ipar Euskal Herriaz | 500 ans de cartographie du Pays basque Bilketa atarian otsailaren 2tik aitzina



Euskal funtsen atariaren erakusketa berriak agerian ematen du Ipar Euskal Herriko bost ehun urteko kartografia. Euskal herria irudikatzen duten 1200 mapa zahar ikustera ematen ditu, 16. mendetik 20. era, gehienbat Iparralderentzat. Estreinaldi mintzaldi bat iraganen da otsailaren 2an Euskal museoan, non mapa batzuk ikusgai izanen diren, eta aditu batzuen ekarpenak izanen ere bai. Hiruhilabeteko honetan beste hitzordu batzuk eskainiak izanen dira, "Ondarearen altxorak" tailerrak bezala, dokumentu miresgarri batzuen ikusteko parada, baita mintzaldi bat, Euskal Herriko turismoaren eta oporraldien historiaz.

Baionako mediatekak eramanik, Euskal hirigune Elkargoak eta Pirinio-Atlantikoetako Departamenduak laguntzarekin, **Bilketa.eus** atariak Euskal Herriari buruzko dokumentu desberdin anitz biltzen ditu : liburu zaharrak, argazkiak, grabaturak, kazeta eta aldizkariak, artikulak, artxiboak... eta liburutegietan eskuragarri diren dokumentu garaikideen erreferentzia anitz.

Erakusketa birtual batzuk erregulariki eratzen dira, bereziki ohargarri diren dokumentu multzo batzuen balioztatzeko. Oraikoan Euskal Herria, eta bereziki Iparraldea, agerrarazten dituzten 1200 mapen korpusa da (16. mendetik 20.era). Gehiengoak Baionako mediatekako, Frantziako Liburutegi Nazionaleko, Baionako Euskal museoko eta Departamenduko artxibategiko funtsetatik datoz.


Erakusketak sarrera geografiko bat eskaintzen du "klik simple batez", eta mapak eskualdeka, kantonamenduka, herrika... eta daten arabera bilatzen ahal dira. Artikulu batzuk ere irakurgai dira, aditu batzuek idatziak, sakontzen dituztena, irudi kartografikoetan oinarrituz, Euskal Herriko historia, paisaiak, urbanizazioa edo euskalkien geografia.

Estreinaldi mintzaldia Baionako euskal museoan otsailaren 2an iraganen da, ostiralez, 18:00etan, eta mapa fisko batzuk, erakusketan birtualki presente direnak, erakuslehotan aurkeztuko dira.

Behin erakusketa birtuala eta bere baliabideak aurkeztuta, webguneko parte editoriala osatu duten hainbat aditu beren gaiaz ariko dira: Sophie Lefort, gida mintzalaria, Euskal herriko ibaietaz, Xarles Videgain, euskaltzaina, hizkuntza mapetaz, eta Beñat Auriol, Auñamendi elkarteko lehendakaria, Euskal herriko kartografiaren historiaz.

Publikoari beste hitzordu batzuk eskainiak izanen zaizkio mediatekan, hiruhileko honetan: "Ondarearen altxorrak" tailerrak, mintzaldi bat Euskal Herriko turismoaren eta oporraldien historiaz. Urtean zehar beste ekintza batzuk eramanen dira.

Erakusketa eta dituen eduki aberatsak ezagutarazteko mediazio lan hori lurraldeko eragile anitzekin eramana da: Baionako euskal museoa, Lapurdum Baionako Hiriko ondarearen Interpretazio zentroa, CPIE Euskal Itsasbazterra, Ospitalea Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroa, Hezkunde Nazionalako aholkulari pedagogikoak...




Otsailaren 2a, ostirala – 18:00
Baionako euskal museoa
Estreinaldirako mintzaldia

Publikoari aurkeztuko zaio erakusketa birtuala, edukiak eta nabigazio tresnak. Artikulu tematiko batzuen idazleek parte hartuko dute gualdian, fokua ezartzeko erakusketaren mapa ohargarri batzuetan. Topaketa euskaraz eta frantsesez iraganen da. Toki mogatuak.



Otsailaren 22a, osteguna – 18:15
Martxoaren 7a, osteguna – 18:15
Hiriguneko mediateka
Ondarearen altxorrak

Liburuzain batek animatutako tailerrak, Mediatekak gordetzen dituen ondareko mapak ikusteko parada eskaintzen dutena. Nerabe-Heldu. Izena eman behar da.



Martxoaren 21a, osteguna – 18:15
Hiriguneko mediateka
Turismo eta oporraldien historia Euskal Herrian

Erakusketa birtualean bildutako mapa turistikoetatik abiatuz, Viviane Delpech, Arte historian doktorea Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatean, turismoaren eta oporraldien abiatzearen historia aipatuko du, Ipar Euskal herriko 19. eta 20. mendeetan. Denentzat. Urritik.

Hiri barneko mediateka, Emile Boeswillwald plaza, 1 - 64100 BAIONA
Gurutze Sainduko mediateka, Gaskoien plaza, 34 - 64100 BAIONA
Baionako Euskal museoa, Kortsarioen kaia, 37 - 64100 BAIONA

Argibide praktikoak, ordutegi eta agenda mediatheque.bayonne.fr gunean sarean.

Baionako Hiriko prentsa harremanak - 05 59 46 63 01 - presse@bayonne.fr